

Hitzaurrea

Deustuko Unibertsitateko (Bilbao) Giza Eskubideen Institutuak Ekintza Humanitarioko eta Giza Eskubideetako Urtekariaren hirugarren edizioa aurkezten du honako liburuki honekin. Argitalpen honen helburua Ekintza Humanitarioko eta Giza Eskubideetako praktiken, esperientzien eta ikerketen hausnarketarako eta trakerako toki bat eskaintzea da akademiko, profesional eta arlo honetan diharduten pertsonen. Urtekariak esparru honetako pentsamendu kritikoa sortzeko espazioa eskaintzen jarraitzeko asmoa du argitalpen honekin, mundu akademikoarentzat ez ezik arlo honetako gizarte eragileentzat ere, estatu eta nazioarte mailan.

Prestakuntza esparruan, Institutuaren erreferenterik nagusiena Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Masterra da. Duela 10 urtetik ematen da Bilbon NOHA Sarea (Network On Humanitarian Assistance) osatzen duten Europako beste sei unibertsitatekin batera. 10 urte hauetan, 200 ikaslek baino gehiagok egin dute ikastaroa Deustuko Unibertsitatean eta horietatik asko dira gaur egun ekintza humanitarioari, giza eskubideak babesteari edo garapenerako lankidetzari lotuta daudenak. Edukiak eta egitura mundu humanitariotik sortzen ziren beharriaz gertatzen diren joan dira denbora honetan zehar. Eta aldaketa horiek eskura dauden sareei esker egin ahal izan dira, errealitatearekin harreman estua izateko aukera ematen baitute, ekintza humanitarioan zuzenean lanean ari diren erakunde bidez, batez ere Gobernu Kanpoko Erakunde bidez, baita zenbait foro akademikoren bidez ere.

Urtekariaren hirugarren edizio honen edukiak bi ekarpen motatetik hornitzen dira: batzuk Institutuaren egituratik kanpo, ekintza humanitarioan eta giza eskubideen alorrean esperientzia zuzena duten pertsonen egindako ikerketetatik; eta beste iker-

keta batzuek Institutuak berak eskaintzen dituen Europako masterretako graduatuek egindako ikerlanak jaso eta eguneratzen dituzte. Edukirik gehienek ikerketa edo artikuluko monografikoen itxura hartzen dute, ekintza humanitarioari buruz Interneten jasotzen diren baliabide nagusien laburpen bat gehitu bada ere.

Urtekariaren hurrengo edizioei begira, urtekari honek eztabaida sortzeko tresna izaten jarraitu dezan eta era askotako ekarpekin aberastu dadin, bertan argitaratzeko baldintzen erreferentzia bat ere gehitu dugu. Hainbat eratarik argitaratu daitezke: artikuluko bertsioan, kasuen azterketa eta/edo aztertu diren gaien inguruko liburuen edo beste argitalpen batzuen laburpen moduan. Hori dela eta, argitalpen hau eskuetan duten guztiei gonbita luzatzen diegu proposamenak egin ditzaten, atsegin handiz hartuko ditugu eta.

Argitalpen hau Institutuak joan den ikasturtean burututako jarduerarik nabarmenenekin osatzen da. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila) laguntzarekin kaleratzen da urtekari hau.

Derechos de autor (Copyright)

Los derechos de autor de esta publicación pertenecen a la editorial Universidad de Deusto. El acceso al contenido digital de cualquier número del Anuario de Acción Humanitaria y Derechos Humanos (en adelante Anuario) es gratuito inmediatamente después de su publicación. Los trabajos podrán descargarse, copiar y difundir, sin fines comerciales y según lo previsto por la ley. Así mismo, los trabajos editados en el Anuario pueden ser publicados con posterioridad en otros medios o revistas, siempre que el autor indique con claridad y en la primera nota a pie de página que el trabajo se publicó por primera vez en el Anuario, con indicación del número, año, páginas y DOI (si procede). La revista se vende impresa Bajo Demanda.